Itziarko
Auzo Udala

2021 IKON 0002. ANTSORREGI-ARRIOLA BIDEA ASFALTATZEKO LANAK

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. Xedea

Egin beharreko lanen helburua Arriola eta Antsorregi baserria lotzen dituen bidea konpontzea da.

Gaur egun bidea hormigoizkoa da eta ez dago egoera onean.

2. Jarduketak

Jarraian, egin beharreko lanak eta bidea konpontzeko gutxi gorabeherako neurriak adierazten dira. Gainditzen diren neurriak kontratistaren kontura izango dira. Lana bidea garbitzea eta kaltetutako hormigoia saneatzea da, ondoren asfaltatzeko.

2.1 bidea garbitzea:

- Bide-ertzetan pilatutako lurra, adarrak eta belarra garbitzea.
- Bideko gainerako zikinkeria garbitzea.

2.2 Kaltetutako hormigoia saneatzea:

- 5 cm-ko lodiera duen hormigoi geruza moztu eta fresatzea (20 m).
- Zuloen betelana (2 Tn). AC16 BASE 50/70 G CALIZA
- Aglomeratzaile asfaltikoarekin profilatzea (550 m2). AC16 BASE 50/70 G CALIZA
- Hondatutako hormigoia pikatzea eta altxatzea (133 m2).
- 15 cm-ko geruza betetzea, profilatzea eta trinkotzea (133 m2).

2.3 Asfaltatu

5 cm-ko lodierako aglomeratu asfaltiko beroan bidezko zoladura, inprimazio-ureztapenarekin (5.400 m2). AC16 50/70 D OFITA.

3. Baldintza teknikoak

3.1 Saneatzea eta asfaltatzea

Gehien hondatu diren azaleren geruzak fresatu eta eraitsiko dira.

Ondoren, AC16 BASE 50/70 G CALIZA motako berozko nahasketa bituminoso batekin beteko da, inprimazio-ureztatze baten gainean.

Azkenik, 5 cm-ko AC16 50/70 D OFITA motako berozko nahaste bituminosoa itsaspen-ureztatzearen gainean zabalduz, azalera indartuko da. Hondatze handia, zuloak, edo zoladuraren egoera orokor txarra duten zoladura-zatietan egingo da tratamendu hori.

Portu kalea, 1 - 20820 DEBA (Gipuzkoa) - ☎ 943192840 - info@deba.eus - www.deba.eus

3.2 Inprimazioa ureztatzea

Inprimatu aurretik, gainazalak ez du material solte, hauts, zikinkeria edo bestelako material arrarorik eduki behar. Gainazalak azaleko lehortasun handiegiaren ondorioz partikula fin solteak baditu, pixka bat busti egingo da, inprimatu aurretik; nolanahi ere, ez da inprimatu beharko gainazaleko ur guztia desagertu arte.

Asfaltozko ureztatzea presiozko banagailuen bidez aplikatu beharko da, modu homogeneoan eta zolatu beharreko azalera guztia estaliz.

Eguraldia euritsua bada, ez da inprimaziorik egin behar. Exekuzioak honako eragiketa hauek barne hartzen ditu: dagoen azalera prestatzea eta emultsio bituminosoa aplikatzea.

3.3 Aldez aurreko lanak

Zoladuran zoruaren egitura hautsita dagoela ikusten bada, zoladura-lanak egin aurretik, oinarrizko geruzak saneatu eta berrituko dira.

4. Kalitatea Kontrola Plana

Kontratistak Errepide eta Zubietako Obretarako Baldintza Tekniko Orokorren Agiriko (PG-3) 211., 212., 214., 510., 530., 531., 542. eta 543. artikuluetan zehaztutako saiakuntza, kontrol eta maiztasun motak bete beharko ditu.

Lanak hasi aurretik, kontratistak kalitate-planaren proposamen bat aurkeztu beharko du, eta Hirigintza Sailak onartu beharko du.

Proba- eta entsegu-gastu guztiak kontratistaren kontura izango dira, eta obra-unitateen prezioetan sartuko dira, exekuzio materialaren aurrekontuko BI GEHIENEKO (% 2) mugaraino. Gastuen zenbaketa horretan ez dira sartuko honako hauei dagozkienak:

- Edozein material mota onartzeko aurretiko saiakuntza guztiak.
- Harrobiak eta maileguak finkatzeko saiakuntza guztiak.
- Agiri honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten saiakuntzak.

Hirigintzak ezarri ahal izango du kontratistak aurrez egindako egiaztapen- eta kontraste-saiakuntza gehigarriak egitea, obren kalitatea ziurtatzeko. Horrela, Hirigintzak kasu bakoitzean egokiak diren materialen eta obra-unitateen saiakuntzak eta analisiak egiaztatzeko agindu dezake, eta sortzen diren gastuak kontratistaren kontura izango dira, obraren aurrekontuaren % 1eko gehieneko zenbatekoraino.

5. Osasun eta segurtasuna

Kontratistak bete egin beharko du 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-obretako segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena. Horretarako, eta segurtasun- eta osasun-azterketarik ez duenez, obraren

Portu kalea, 1 - 20820 DEBA (Gipuzkoa) - ☎ 943192840 - info@deba.eus - www.deba.eus

berariazko arriskuen ebaluazioa aurkeztuko da, edo, bestela, segurtasun- eta osasun-plana, hala behar badu.

Sustatzaileak izendatutako segurtasun-koordinatzaileak obrak hasi aurretik onartu beharko du agiri hori.

Puntu hau aplikatzearen kostua obraren gastu orokorren barruan egongo da, eta aurrekontuan ez dago horretarako partida espezifikorik. Kostu horren barruan sartzen da ordezko zirkulazioa mantentzeko edo desbideratzeko lanetan egin beharreko behin-behineko seinaleztapen guztia.

6. Hondakinen kudeaketa

Kontratistak ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua bete beharko du, eraikuntzako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena.

Puntu hau aplikatzearen kostua obraren gastu orokorren barruan egongo da, eta aurrekontuan ez dago horretarako partida espezifikorik.

7. Betearazpen-epea

Hirigintza Sailarekin adostuko da egin beharreko lanen ordena, eta, horretarako, kontuan hartuko dira klimatologia eta trafikoan izan ditzakeen eraginak.

Guztira, 4 asteko exekuzio-epea aurreikusten da.

8. Aurrekontua

Dokumentu honetako partidetan deskribatutako aurrekontua 104.209,20 € da (126.093,13 € BEZ barne).

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, dokumentu hau sinatzen du:

Deba, 2021eko abuztuaren 6a

Zuriñe Artetxe Ballejo

DEBAKO UDALA HIRIGINTZA OBRA ETA ZERBITZUAK

Udal Arkitekto Teknikoa

Portu kalea, 1 - 20820 DEBA (Gipuzkoa) - ☎ 943192840 - info@deba.eus - www.deba.eus